

## Kale Nagusia 39 ko hirigintzako esku-hartze eremuan Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren aldaketa puntualaren proposamen bilera

- Egungo HAPO-ak berak duen araudi berezia dela eta, aldaketa hau egin beharra dagoela aurreikusten da

**Andoainen, 24-06-05**-Andoaingo Udalak onartutako partaidetza-programaren barruan, deialdia egiten da sustatzaileen ordezkariak eta aldaketa puntuala idatzi duten teknikariak bilera publiko bat egiteko. Interesa duten herritar guztiei ekimenaren irizpideen eta espedientea izapidetzean aurkeztutako aukeren berri emango zaie. Herritarrek horri buruz galderak egiteko eta esku hartzeko txanda izango dute.

Bilera ireki hau, ekainaren 12an egingo da Udal batzar aretoan arratsaldeko 18:30etan. Beraz, aurretik aipatu bezala Andoaingo Udalak dei egiten die gai honen inguruan interesa duten herritarrei bilerara bertaratu eta honen inguruan euren iritzia plazaratzeko.

Parte-hartze prozesuaren baitan bestalde, aldaketa honen inguruko informazioa barnebiltzen duten dokumentuak modu fisikoan egongo dira eskuragarri udaletxeko hirigintza sailean interesa duen herritar ororentzat. Formatu fisikoaz gain, [www.andoain.eus](http://www.andoain.eus) webgunean ere formatu digitalean aurkitu ahal izango dira prozesuarekin zerikusia duten dokumentu guztiak.